

## **KANALAK**

Sorturiko produktu hau era desberdinetan erosi ahal izango da, bai aurrez-aurre eta baita online ere. Website-aren bidez, eskainiko dugun produktuaren katalogoa izango dugu non bertan salmentan ditugun produktuak eskainiko diren. [GURE WEB-A](#)

Komunikazio-kanaleei dagokionez, arestian aipatutako websitean gure produktuaren informazio guztia bertan batuta egongo da, hala nola, fitxa teknikoa, erabilitako materialak etab. Gainera, websitean bertan posta elektronikoa bat edota mugikor zenbaki bat abian egongo da bezeroentzako arreta-zerbitzu moduan ala edonolako galderak edo zalantzak argitzeko. Horretaz gain websitean egindako eskakizunak garraio-enpresen bidez helaraziko dira bezeroei, hala nola, DHL edo Seur.



Banaketa-kanalei begiratuta, denda fisiko bat izango dugu non bertan gure produktua salmentan egongo den, gainera hori alde batera utzita denda horretan bertan beste edozein denda baten moduan aurrez aurreko bezeroentzako arreta-zerbitzu bat egongo da, baina posiblea izango da ere produktuak inungo arazorik izan ezkeru hau dendara eramatea eta bertan uztea konpontzeko. Hori egin ostean mezu bat bidaliko zaio bezeroari esanez bere produktua konponduta dagoela eta honen bila etor daitekeela nahi duenean. Ez hori bakarrik baizik eta itzulketak egitea posible izango da bezeroak produktua gustuko ez badu izan, beti ere honek erositakoaren ticket-a duen.



Salmenta-kanaleei begiratuta, egingo genukeen beste salmenta mota bat bigarren bateri saltzea izango zen ondoren horrek bezeroari saltzeko. Hau MediaMarkt bidez gauzatuko dugu, guk hornitzaile moduan jokatuko dugu kasu honetan, hau da, gure produktuak MediaMarkt-eko denda ezberdin

askotan salmentan jarriko ditugu, hauek bezeroari zuzenean salduko dio. Guk dendako informatikari eta elektronikari funtzionamendua azalduko diogu, horrela beraiek ere produktua matxuratuta egon ezkeru edonolako konponketa egin ahal dezakete.

Beste alde batetik, Oral-Brekin elkarte edo aliantza egingo dugunez beraiek ere posible izango dute gure produktua salmentan jartzea beraien katalogoan eta produktuarekin edozein arazo egon ezker bezeroak Oral-Bri esan dio eta azken honek guri esan edo bidaliko digu dagoen arazoa lehenbailehen konpontzeko, hau da produktua matxuratuta egon ezker erantzunkizuna guztiz gurea izango da.

